

PERTSONA ATZERRITARRENTZAKO EZOHIKO ERREGULARIZAZIOA

Datozen orduetan erregularizazio prozesuan martxan jartzeko dekretua publikatuko da eta epea **ekainak 30ean bukatzea** aurreikusten da.

Erregularizatzeko baldintza orokorrak:

- Espainiar estatuan 2026eko urtarrilak 1 baino lehen sartu izana.
- Eskaera egin baino gutxienez 5 hilabete lehenago etorri izana.
- Aurrekari penalik ez izatea, jatorrizko lurraldean zein besteetan.
- Asilo eskaera kasuan, hau 2026eko urtarrilak 1 baino lehen egin izana.

Hiru bide daude prozesu honetarako sarbidea lortzeko:

- Espainiar estatuan lan egin izana edo lan kontratu bat aurkeztea
- Bizikidetzaren unitatean egotea:
 - Eskolarizatzeko adin txikikoak.
 - Menpeko egoeran dauden bestelako familiako kideak.
- Zaurgarritasun egoeran egotea (ulertzen da egoera irregularrean egoteak jada zaurgarri bilakatzen zaituela, baina hau entitate kolaboratzaileek egiaztatu beharko dute).

Garrantzitsua:

Eskaera tramitera onartzen den momentutik lan eta bizi baimen probisionala ematen da.

Prestatzen joateko dokumentazioa:

- Pasaporte, bidai titulua edota inskripzio zedula (indarrean edo iraungita).
- Aurrekari penalak jatorrizko lurraldean (dokumentuak 3 hilabeteko iraupena).
 - Apostilatua eta espainolera itzulia modu ofizialean.
- Aurrekari penalak espainiar estatuan: administrazioak jaulkitzen du.
- Dokumentazioaren jaulkipenarekin arazoak badituzu, atzerapenak daudelako edo beste arrazoi batzuegatik, tramitazioa hasi izanaren froga gisa kapturak egin.
- Errolda ziurtagiria (3 hilabeteko iraupena dauka)
- Zure egonaldia frogatzeko beste ziurtagiri batzuk: bidai txartelak, medikuaren zita eskaerak, suministroen kontratuak (telefonoa, gasa, elektrizitatea), bestelako ziurtagiriak betiere **data eta norbere izen-abizenak jasotzen dituen**.
- Adin txikikoentzako dokumentazioa:
 - Jaiotza agiri apostilatuak: beste hizkuntza batean badago, espainolera itzultzea modu ofizialean.
 - Guraso ahalmena ez badaukazu (patria potestad) beste guraso kidearen baimena notariala eskaera hau egin ahal izateko.

Klase borroka antirrazista izango da!



ELA
EUSKAL SINDIKATUA